

KOMUNIKAZIOA

ETSAITASUNARI AURRE EGIN

Jarduera honetan, kasuak aztertzearen bidez, gogoeta egiten da etsaitasun-egoeretan eta oztipoei aurre egin behar zaienean izaten den komunikazioaz.

1. Kasua

Orientatzailea kafe-gelara sartu da. Esaten du, modu informalean, Zuzendaritzak zikloko tutoreen bilera baterako deia egin duela. Hortik aurrera, interakzio negatiboa gertatzen da tutore batekin.

Orientatzailea: Tutoreen bilera bat jarri dugu datorren ostegunerako, ordu librean, bazkalaurrian.

Irakasle-tutorea (eszeptizismoz): Jakina, zuretzat oso erraza da bilerak egitea, astia duzulako. Ni asper-asper eginda nago ezertarako balio ez duten hainbeste bilerarekin.

Orientatzailea: Badakizu ordu hori koordinazio-bileretarako dela, eta ni ere aspertuta nago zu beti kexuka entzuteaz.

Gogoeta egin behar da komunikazioaz, kasuak analizatzearen bitartez; nola estrategia itxuraz positiboek gatazka handitzen lagundu dezaketen. ***Kasuak aztertzeko hezitzaileen erreakzioaren deskribapena eta balorazioa egin behar dira, arrazoituz zergatik jotzen diren desegokitzat edo egokitzat egindakoak.***

Azterketarako auzi zehatzak

1. Gertatutakoa deskribatu
2. Orientatzailearen komunikazio-trebetasunak identifikatu eta baloratu
3. Zer mezu mota erabiltzen ditu orientatzaileak? Justifikatu zeure erantzuna
4. Tutorearen komunikazio-trebetasunak identifikatu eta baloratu
5. Zer mezu mota erabiltzen ditu orientatzaileak? Justifikatu zeure erantzuna

2. kasua

Anderren jokabideak okerrera egin du, eta irakasle guztiak kexu dira. Denbora guztian ari da pailazoarena egiten gelan, eta erronka-jarrera du. Tutoreak erabaki du asteazkenean gurasoekin hitz egingo duela, eskolen ondoren. Gurasoak eguna nahastu eta asteartean agertu dira, eta tutorea ez dagoenez, orientatzaileak hartzen ditu. Egoera zaila da, azaldu behar baitaie semea beti dabilela beste ikaskide batzuekin liskarretan. Azaltzen die arazoa, eta esaten die tutoreak deituko diela polikiago hitz egiteko eta ea nola konpon daitekeen ikusteko. Biharamunean tutorearekin topo egiten duenean, elkarrizketa hau dute:

Orientatzailea (oso haserre): Aizu, atzo Anderren familia etorri zen, eta zu ezta agertu ere. Nik hartu nituen, eta esan nien deituko diezula hitz egiteko. (Ironia halako batez): Espero dut gogoratuko zarela.

Tutorea (irmo, entzun ondoren): Nik ez nuen hitzordurik inongo familiarekin, eta laster ikus dezakezu hitzorduen agendan. Ez nauzu ondo tratatzen horrela hitz egiten didazunean.

Orientatzailea (etenez): Zer sentibera. Ez zaitut ondo tratatzen (ironiaz). Eta nola uste duzu sentitzen garela besteok zure jokaeraren aurrean? Akatsik ez duzulakoan, ala?

Tutorea: Hara, ulertzen dut zu haserre egotea, familia hartu behar izan zenuelako...

Orientatzailea (etenez): Gutxienez, jakinarazi bazenit zer asmo zenuen...

Tutorea: Ondo da, ados. Ikusten dut haserre zaudela. Uste dut hobe izango dela, lehenengo, zer gertatu den ikustea, eta ondoren jarraituko dugu hizketan... (Alde egiten du, eta handik pixka batera itzultzen da, hitzorduen liburua eskua duela. Ipintzen du mahai gainean, eta esaten du 😊 Egoki iruditzen zaizunean, hitz egingo dugu Anderren arazoaz.

Kasua balioetsi ondoren, esan ados zauden elkarrizketaren buruan erabilitako estrategiekin.

Orientatzailea: Hitz egin... zuk duzu azala! Hitz egin. Orain hitz egin nahi duzu... zera egin behar zenuke zuk, ez ibili atzetik jardun eta jardun. Uste duzu ez dakidala nola zabiltzan hor zehar esanez mari-tente bat naizela eta neure gauzez baino ez naizela arduratzen?

Tutorea: Uste baduzu horrelakoak esanez nabilela, ulertzen dut zu haserre egotea. Ni ere egongo nintzateke, baina berriz esaten dizut ez nauzula ondo tratatzen, eta eskatzen dizut hurrengoan egiaztatzeko kritikatzan hasi aurretik,

nik ez bainuen hitzordurik gurasoekin, eta ez da egia ni marmarka ari naizenik zure kontra.

Azterketarako auzi zehatzak

- 1 *Gertatutakoa deskribatu*
2. *Orientatzailearen komunikazio-trebetasunak identifikatu eta baloratu*
3. Zer mezu mota erabiltzen ditu orientatzaileak? Justifikatu zeure erantzuna
4. *Tutorearen komunikazio-trebetasunak identifikatu eta baloratu*
5. Enpatizatzea al da estrategiarik egokiena horrelako egoeretan, ala ba al da beste estrategia egokiagorik? Justifikatu zeure erantzuna, eta zehaztu zer egoeretan ez liratekeen erabili behar.

3. Kasua

Hezitzaile bat gelan sartu da eta mutiko bat aurkitu du oihuka eta aulkiak lurrera botatzen, iskanbila handia ateraz. Hurbildu zaio, jaso du aulki bat, eta eskatu dio eskola ondoren geratzeko une batez, hitz egiteko.

Hezitzailea: Pello, ez dut uste oihuka ibiltzea eta aulkiak lurrera botatzea jokaera oso egokia denik...

Pello/Enrike (etenez): Zirika eta zirika ibili zaizkit. Haien errua da. Nire kontra ari ziren.

Hezitzailea: Ez dut zalantzarik, izango dituzu haserretzeko arrazoiak... baina nahikoa da.

Pelloc eten egiten dio, eta oihuka hasten da berriro: Muturra hautsiko diet ni zirikatzen jarraitzen badute.

Hezitzailea (Pelloc amaitu arte zain egon, eta irmo): Pello, molestatu egiten naute zure oihuek, aulkiei ostikoka jarduteak. Altzariak denonak dira...Beti zabilta istilutan. Aulki bat hautsi duzu. Gelditu, nahikoa dugu.

Pelloc berriro eteten dio, oso haserre: Zergatik gelditu behar dut nik? Eta haiek zer, zergatik beti ni? Atea danbateko batez itxi eta alde egiten du.

Hezitzailea atzetik doakio (irmo): Pello, nik zuri entzun dizut, eta zuk ere niri entzutea nahi nuke. Nahi baduzu, gero jarraituko dugu hizketan, zer egin zu zirikatzen hasten direnean eta haserretzen zarenean...Baina kontuan hartu behar duzu ezin zarela hasi oihuka eta bazter guztiak hausten. Gauzak hausten badira, konpondu egin behar dira. Eskola-orduen ondoren, geratu egin beharko duzu...

- 1 Gertatutakoa deskribatu
- 2 Hezitzaileak egindakoa baloratu, arrazoituz, estrategiak identifikatu ondoren